6.4.- Entidades colaboradoras.- Será entidad colaboradora aquella que, actuando en nombre y por cuenta del órgano concedente a todos los efectos relacionados con la subvención, entregue y distribuya los fondos públicos a los beneficiarios, cuando así se establezca en las bases reguladoras, o colabore en la gestión de la subvención sin que se produzca la previa entrega y distribución de los fondos recibidos.

Fondo horiek, inolaz ere, ez dira haren ondarearen baitakotzat joko, eta ezin izango dira gorde edo murriztu haren parte-hartzeak berekin dakartzan gastuak berreskuratu edo konpentsatzeko, ordenantza honen 7.3.g) artikuluan aurreikusitakoa salbu.

Honako hauek jo ahal izango dira erakunde laguntzailetzat: antolakunde eta enpresa publikoak, partaide bakarra edo nagusia Vitoria-Gasteizko Udala duten merkataritza-sozietateak, zuzenbide publikoko erakunde baten babespean eratutako fundazioak eta 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen diren elkarteak, baita finkatzen diren kaudimen eta eraginkortasun baldintzak betetzen dituzten gainerako pertsona juridiko publiko nahiz pribatuak ere.

Erakunde laguntzaileak zuzenbide pribatuari lotutako pertsonak direnean, aukeraketa egingo da aldez aurretik, publikotasun, lehia, berdintasun eta bazterketarik ezaren printzipioen mende egongo den prozedura baliatuz, eta hitzarmen baten bidez zertuko da lankidetza, salbu eta berorren xedea dela eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legea aplikatu beharra badago.

6.5.- Erakunde laguntzaileen betebeharrak.- Honako hauek izango dira:

a) Jasotako fondoak onuradunei banatu eta ematea, diru-laguntzak arautzeko oinarrietan eta diru-laguntzak ematen dituen erakundearekin izenpetutako hitzarmenean finkatutako irizpideei jarraiki.

b) Diru-laguntzak emateko betebehar edo baldintzak bete direla eta eraginkorrak direla egiaztatzea, behar izanez gero, baita jarduera burutu dela eta diru-laguntza ematea edo baliatzea ekarri zuen helburua bete dela ere.

c) Jasotako fondoak besteri eman izana justifikatzea diru-laguntzak ematen dituen organoaren aurrean, eta, behar izanez gero, onuradunek aurkeztutako justifikazioak hari helaraztea.

d) Fondo horien kudeaketa dela-eta diru-laguntza ematen duen erakundeak, Vitoria-Gasteizko Udalak nahiz legez horretarako eskumena duten organoek egiten dituzten ikuskaritza eta kontrol jardueren mende jartzea.

e) Deialdietako arauetan nahiz oinarrietan finkatzen den beste edozein betebehar.

7. ARTIKULUA.- LANKIDETZA-HITZARMENAK

7.1.- Lankidetza-hitzarmena egingo dute erakunde emaileak eta erakunde laguntzaileak, eta bertan arautuko dira azken horrek bere egiten dituen baldintza eta betebeharrak.

7.2.- Lankidetza-hitzarmenak ezingo du izan lau urtetik gorako indarraldia. Hala ere, epe hori bukatu aurretik, eta bi aldeak ados daudelarik, hitzarmena aldatu edo luzatzeko aukera aurreikusi ahal izango da bertan. Nolanahi ere, luzapenen iraupena, guztira, ezingo da izan hasierako indarraldia baino handiagoa, ezta iraupen osoa sei urtetik gorakoa ere.

7.3.- Gutxienez honako hauek jaso beharko dira lankidetza-hitzarmenean:

a) Lankidetzaren xedearen definizioa, baita erakunde laguntzailearena ere.

b) Erakunde laguntzaileak kudeatuko dituen diru-laguntzak arautzen dituen araudi berezia.

c) Hitzarmenaren iraupena.

d) Diru-laguntzen prozeduraren faseetako bakoitzean erakunde laguntzaileak bete behar dituen eta betearazi behar dituen betebeharrak.

e) Erakunde laguntzaileak zein kontabilitate liburu eta erregistro eduki behar dituen, diru-laguntzaren justifikazio egokia eta finkatutako baldintzak bete izanaren egiaztapena errazte aldera.

f) Diru-laguntza ematen denean finkatzen diren betebeharrak betetzen ez badira, baita ordenantza honen 20. artikuluan arautzen diren kasuetan ere, fondoak itzultzeko obligazioa.

g) Erakunde laguntzailearen alde finkatzen den konpentsazio ekonomikoa, halakorik bada.

8. ARTIKULUA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERA EDO PROIEKTUAK

Berariazko deialdietan programatutako jarduerak –aurrerago adieraziko diren esparruetakoak– bideratzeko eman ahalko dira diru-laguntzak.

Dichos fondos en ningún caso se considerarán integrantes de su patrimonio, ni podrán retenerse o minorarse para recuperar o compensar los gastos a que pudiera dar lugar su participación, salvo lo previsto en el artículo 7.3.g) de esta Ordenanza.

Podrán ser consideradas entidades colaboradoras los organismos y demás entes públicos, las sociedades mercantiles participadas íntegra o mayoritariamente por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, y las fundaciones que estén constituídas bajo el protectorado de un Ente de Derecho Público y las asociaciones a que se refiere la disposición adicional quinta de la Ley 7/1985, así como las demás personas jurídicas públicas o privadas que reúnan las condiciones de solvencia y eficacia que se establezcan.

Cuando las entidades colaboradoras sean personas sujetas a derecho privado, se seleccionarán previamente mediante un procedimiento sometido a los principios de publicidad, concurrencia, igualdad y no discriminación y la colaboración se formalizará mediante convenio, salvo que por objeto de la colaboración resulte de aplicación plena la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

6.5.- Obligaciones de las entidades colaboradoras.- Serán las siguientes:

a) Distribuir y entregar a los beneficiarios los fondos recibidos de acuerdo con los criterios establecidos en las bases reguladoras de la subvención y en el convenio suscrito con la entidad concedente.

b) Comprobar, en su caso, el cumplimiento y efectividad de las condiciones o requisitos determinantes para su otorgamiento, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Justificar la entrega de los fondos percibidos ante el órgano concedente de la subvención y, en su caso, entregar la justificación presentada por los beneficiarios.

d) Someterse a las actuaciones de inspección y control que respecto de la gestión de dichos fondos pueda efectuar la entidad concedente, la Intervención del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz o los órganos legalmente competentes.

e) Cualquiera otras obligaciones que pudieran establecerse en las normas reguladoras o en las bases de las correspondientes convocatorias.

ARTICULO 7º.- CONVENIOS DE COLABORACIÓN

7.1.- Se formalizará un convenio de colaboración entre la entidad concedente y la entidad colaboradora en el que se regularán las condiciones y obligaciones asumidas por ésta.

7.2.- El convenio de colaboración no tendrá un plazo de vigencia superior a 4 años, si bien podrá preverse en el mismo su modificación y su prórroga por mutuo acuerdo de las partes antes de la finalización de aquél, sin que la duración total de las prórrogas pueda ser superior a la vigencia del período inicial y sin que en conjunto su duración total pueda exceder de seis años.

7.3.- El convenio de colaboración deberá contener como mínimo los siguientes extremos:

a) Definición del objeto de la colaboración y de la entidad colaboradora.

b) Normativa reguladora especial de las subvenciones que van a ser gestionadas por la entidad colaboradora.

c) Plazo de duración del convenio regulador.

d) Requisitos que debe cumplir y hacer cumplir la entidad colaboradora en las diferentes fases del procedimiento de las subvenciones.

e) Determinación de los libros y registros contables específicos que debe llevar la entidad colaboradora para facilitar la adecuada justificación de la subvención y la comprobación del cumplimiento de las condiciones establecidas.

f) Obligación de reintegro de los fondos en el supuesto de incumplimiento de los requisitos establecidos en la concesión de la subvención y, en todo caso, en los supuestos regulados en el artículo 20 de esta Ordenanza.

g) Compensación económica que en su caso se fije a favor de la entidad colaboradora.

ARTICULO 8º.- ACTIVIDADES O PROYECTOS SUBVENCIONABLES

Serán subvencionables las actividades programadas en las convocatorias específicas, y referidas a los ámbitos que se señalarán.

Vitoria-Gasteizko Udalak babestutako jarduerak gizon-emakumeen aukera-berdintasunaren printzipiora moldatzeko premiaren inguruan alkate lehendakariak 2002ko otsailaren 20an emandako dekretuaren ildotik, ezingo da diruz lagundu osorik nahiz zati batean gizon-emakumeen berdintasunaren printzipio horren kontrako den jarduerarik.

a) Kultura: artearekin, zientziekin nahiz letrekin zerikusia duen edozein kultur jardueratarako eman ahal izango da diru-laguntza. Baita kultur aniztasunarekin –prestakuntzaren esparruan– eta kultur ondarea babestearekin, zabalkundearekin nahiz sorkuntzarekin –esparru ludikoan– zerikusia duten jardueretarako ere.

b) Turismoa: turismoaren arloan, hiriko turismoa sustatzera bideratutako jarduerak, baita udalerritik kanpo hiria ezagutzera ematera bideratuak ere.

c) Jaiak: Vitoria-Gasteizko udalerriko auzo eta herrietako jai nagusien eta jai herrikoien alorreko jarduerak, eta udalak esparru horretan antolatzen dituen jardueren osagarri diren jai ospakizunak.

d) Kirola: kirol ekitaldi eta jardueren nahiz kirol sustapenaren alorrekoen antolakuntzatik sortutako gastuei aurre egiteko eman ahal izango da diru-laguntza.

e) Hezkuntza: ikasleen prestakuntzarako jarduerak, guraso elkarteei eutsi eta horien jardunean laguntzea, eta hezkuntza sektorera zuzendutako bestelako jarduerak.

f) Gazteria: animazio sozio-kulturalerako jarduerak, gazteei zuzendutako programak, lehiaketak, erakusketak, gazteen sorkuntzarekin eta kulturarekin zerikusia duten bestelako jarduerak, informazio eta aholkularitza programak, aisialdikoak, prestakuntza eta hezkuntza programak, aldizkari eta argitalpenak eta, oro har, gazteen partehartzea eta gazte elkarteak sustatzearekin zerikusia duten jarduerak oro.

g) Osasuna: prebentziora eta osasuna babestu eta sustatzera bideratutako jarduerak, herritar orori nahiz arrisku egoera berezian daudenei zuzenduak. Baita populazio talde batzuen edo besteen osasuna sustatzen duten proiektu eta programak ere, hezkuntza eta prebentzio xedeen osagarri direnak. Halaber, gaixoen berri eman eta horiek gizarteratu eta birgaitzen laguntzeko informazio eta prestakuntza jarduerak eta ekitaldi publikoak –jardunaldiak, mintegiak eta abar– antolatzetik sortutako gastuei aurre egiteko ere eman ahal izango da diru-laguntza.

h) Ingurumena: hiri nahiz natur ingurumena babestera bideratutako jarduerak eta bereziki babeste zeregin horretara zuzendutako edonolako jarduerak sustatzea. Baita prestakuntza, informazio eta parte-hartze jarduerak ere.

i) Lankidetza: garatze bidean dauden herrialdeetan elkartasun proiektuak gauzatzera bideratutako jarduerak, baita herrialde horien egoerari buruzko sentsibilizazio ekintzak ere, herritar orori zuzenduak.

j) Herritarren parte hartzea: auzo elkarteen sustapenarekin, funtzionamenduarekin eta jardunaekin zerikusia duten ekintzak.

k) Gizarte zerbitzuak: gizartegintzaren alorreko informazioa eta sentsibilizazioa, gizarte bazterketa egoeren prebentzioa nahiz gizarte zailtasun egora horiei aurre egiteko baliabide pertsonalak sustatzea xede duten jardueretarako eman ahal izango dira diru-laguntzak, eta, oro har, atzemandako herritarren beharren esparruan laguntza sozial eta naturala emateko sareak bultzatzen dituzten pertsona eta taldeei.

l) Genero berdintasuna: Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, ospatzeko jarduerak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legean jasotako gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako programak garatzeko jarduerak, baita emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitera zuzenduak ere.

m) Ekonomi sustapena: hiriko ekonomi ehuna hobetu eta dibertsifikatzera zuzendutako jarduerak, baita erabateko laneratzea eta lan merkatuaren kalitatearen hobekuntza lortzera zuzendutakoak ere.

Esparru horren baitan, adibide gisa, honako hauek sar litezke: enpresa berriak sustatzera –batez ere autoenpleguaren eta ekonomia sozialaren arlokoak–, horien maila teknologikoa hobetzera, langabeen prestakuntzara, langileak lan tipologia berrietara egokitzera eta gisakoetara bideratutako jarduerak.

n) Estrategi Plangintza: Vitoria-Gasteizko Ekonomi eta Gizarte Kontseiluarekin koordinaturik hiriko errealitate ekonomiko, sozial eta kulturalaren ezagutza hobetzera zuzendutako ekintzak.

Conforme al Decreto de Alcaldía-Presidencia de fecha 20 de febrero de 2002, sobre adecuación de las actividades patrocinadas por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, no podrá subvencionarse ninguna actividad que, total o parcialmente, entre en contradicción con el principio de igualdad de mujeres y hombres.

a) Cultura: en el ámbito de la cultura lo será cualquier actividad cultural relacionada con las artes, las ciencias y las letras. Igualmente será objeto de subvención cualquier tipo de iniciativa relacionada con la multiculturalidad, en el ámbito formativo, de protección del patrimonio cultural, de difusión, de creación, y en el lúdico.

b) Turismo: en el ámbito del turismo lo será la actividad destinada al fomento del turismo en la ciudad, así como el conocimiento de la misma fuera del territorio municipal.

c) Festejos: en el ámbito de los festejos, la actividad relacionada con los festejos patronales y/o populares de los barrios y pueblos del término municipal de Vitoria-Gasteiz, y aquellas actividades festivas que complementen las actividades municipales en esta materia.

d) Deporte: son subvencionables los gastos derivados de la organización de actos y actividades deportivas o relacionadas con la promoción del deporte.

e) Educación: actividades dirigidas a la formación de los alumnos, sostenimiento y funcionamiento de las APAS, y demás actividades dirigidas al sector educativo.

f) Juventud: actividades de animación sociocultural, programas destinados a jóvenes, concursos, exposiciones, otras actividades relacionadas con la cultura y creación juvenil, programas de información y asesoramiento, ocio y tiempo libre, actividades formativas y educativas, revistas y publicaciones y, en general, todas aquellas actividades relacionadas con el fomento de la participación y el asociacionismo juvenil.

g) Salud: actividades encaminadas a la prevención, protección y promoción de la salud, dirigidas a la población en general y colectivos con especial riesgo. También aquellos proyectos o programas que contemplen objetivos educativos y preventivos que fomenten la salud de los diferentes grupos de población. Serán también subvencionables los gastos derivados de actividades informativas-formativas, organización de actos públicos, como jornadas, seminarios, etc., que faciliten el conocimiento, inserción y rehabilitación de enfermos.

h) Medio Ambiente: actividades encaminadas a la protección del medio ambiente urbano y natural y la promoción de todo tipo de actividad que se dirija especialmente a esta protección. También actividades formativas, de información y participación de los vecinos.

i) Cooperación: actividades encaminadas a la consecución de proyectos solidarios en Países en Vías de desarrollo, así como acciones de sensibilización dirigidas a la ciudadanía sobre la situación de estos países.

j) Participación Vecinal: actividades dirigidas a la promoción, funcionamiento y actuaciones de las Asociaciones de Vecinos.

k) Servicios Sociales: serán subvencionables las actividades orientadas a la información y sensibilización en materia de intervención social, a la prevención de situaciones de exclusión social, a la promoción de los recursos personales para hacer frente a estas situaciones de dificultad social y en general, a las personas y colectivos que potencien las redes de apoyo social y natural en el marco de las necesidades ciudadanas detectadas.

l) Igualdad de género: actividades dirigidas a la conmemoración del Día 8 de marzo/Día Internacional de la Mujer y actividades para el desarrollo de programas para la igualdad de mujeres y hombres, recogidos en la Ley de Igualdad de Hombres y Mujeres de la CAE, así como aquellas actividades dirigidas a la lucha contra la violencia ejercida hacia las mujeres.

m) Promoción Económica: actividades orientadas a la mejora y diversificación del tejido económico de la ciudad, así como al logro de una plena inserción laboral y una mayor calidad del mercado de trabajo.

En este marco podrían inscribirse a título indicativo actividades encaminadas a la promoción de nuevas empresas, preferentemente en materia de autoempleo, economía social, a la mejora de su nivel tecnológico, a la formación de desempleados, a la adaptación de los trabajadores a las nuevas tipologías laborales, etc.

n) Planificación Estratégica: actividades dirigidas a mejorar el conocimiento de la realidad económica, social y cultural de la ciudad en cooordinación con el Consejo Económico y Social de Vitoria-Gasteiz.

ñ) Euskara: euskarari belaunaldiz belaunaldi iraunaraztea xede duten jardueretarako eman ahalko dira diru-laguntzak, baita gizarte bizitzako hainbat esparrutan nahiz sorkuntzaren, ekoizpenaren, prestakuntzaren eta itzulpengintzaren alorrean euskararen erabilera bultzatzea xede dutenetarako ere.

o) Beste: udalaren jardunaren osagarri den eta, populazio talde jakin bati zuzendua izaki, diru-laguntza emateko modukoa den beste edozein jarduera.

9. ARTIKULUA.- DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZIAZIOA

9.1.- Diru-laguntza jasotzen duen jarduera finantzatzeko dirukopuruaren parte bat norberak jartzea eskatu ahal izango da oinarrietan. Ordenantza honen 17.2.b) artikuluan adierazten den moduan egiaztatu beharko da diru-laguntza jasotzen duen proiektu edo jarduera dela-eta norberak egiten duen diru-ekarpen hori.

9.2.- Oinarrietan finkatuko da diru-laguntzak bateragarri diren ala ez helburu berarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk –dela estatuko, dela Europar Batasuneko, dela nazioarteko– emandako bestelako diru-laguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabideekin, hurrengo atalean adierazten dena gorabehera.

9.3.- Diru-laguntzaren zenbatekoak ezingo du gainditu, inolaz ere, dena delako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein diru-laguntza, laguntza edo baliabiderekin batera.

9.4.- Diru-laguntza emateko orduan aintzat hartutako egoera aldatzen delarik, baita arauetan baimentzen diren kasuetatik kanpo bestelako ekarpenik jasotzen delarik ere, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da, diru-laguntza arautzen duen araudian aurreikusitako moduan.

9.5.- Onuradunei emandako diru-kopuruek sortzen dituzten finantza-etekinak diru-laguntzaren zenbatekoari gehituko zaizkio, eta diruz lagundutako jarduerarako baliatuko, salbu eta diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan besterik xedatzen bada, behar bezala arrazoitzen delarik.

HIRUGARREN KAPITULUA
DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

10. ARTIKULUA.- PROZEDURA MOTAK

10.1.- Nahi duen ororen arteko lehia baliatuko da diru-laguntzak emateko ohiko prozeduratzat. Hain zuzen ere, hauxe joko da nahi duen ororen arteko lehiatzat lege honi dagozkionetarako: diru-laguntzak aurkeztutako eskabideak alderatu ondoren ematen direneko prozedura, zeinen baitan horien arteko lehentasun-hurrenkera bat finkatuko baita, oinarri arautzaileetan eta deialdian aldez aurretik finkatutako balorazio-irizpideei jarraiki, eta irizpide horiek aplikatzen direlarik baloraziorik handiena lortzen dutenei esleituko diru-laguntzak, erabilgarri dagoen kreditua, hots, deialdian finkatutakoa mugatzat harturik.

Halakoetan, administrazio publikoek beren burua antolatzeko duten gaitasunaren ondorio diren espezialitateak gorabehera, organo kolegiatu batek egingo dio diru-laguntzak emateko proposamena horiek eman behar dituen organoari, organo instruktorearen bitartez.

*10.1.1.- Bideratze organoa.*

Deialdia sustatzen duen arloko zinegotziaren menpeko udal zerbitzuetako teknikariei dagokiei diru-laguntzak emateko prozedura bideratzea. Ofizioz egingo dituzte ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten jarduerak oro.

*10.1.2.- Organo kolegiatua.*

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.1. artikuluari dagokionez, gutxienez ere hauek osatuko dute laguntzak emateko proposamena egiteko eskumena izango duen organo kolegiatua: dagokion zinegotzi ordezkariak, zerbitzuburuak eta gai horretan eskua duen beste teknikari batek.

*10.1.3.- Deialdian azaldutako irizpide teknikoak baloratzera mugatuko da laguntza emateko proposamena.*

10.2.- Diru-laguntza hauek eman ahal izango dira zuzenean:

- Estatuaren, autonomia erkidegoen nahiz toki-erakundeen aurrekontu orokorretan inoren izena eta guzti aurreikusita daudenak, hitzarmenetan eta diru-laguntzei buruzko araudietan jasotakoari jarraiki.

ñ) Euskera: podrán ser objeto de subvención las actividades que tengan por objeto la promoción de la transmisión intergeneracional del euskera, el impulso del uso de la lengua en los distintos ámbitos de la vida social, o la creación, producción, formación y traducción en esta lengua.

o) Otras: cualquier otra actividad que sea complementaria de la actividad municipal y susceptible de subvencionar por dirigirse a un colectivo de población determinado.

ARTICULO 9º.- FINANCIACION DE LAS ACTIVIDADES SUBVENCIONADAS

9.1.- Las bases reguladoras de la subvención podrán exigir un importe de financiación propia para cubrir la actividad subvencionada. La aportación de fondos propios al proyecto o acción subvencionada habrá de ser acreditada en los términos previstos en el artículo 17.2.b) de esta Ordenanza.

9.2.- Las bases reguladoras de la subvención determinarán el régimen de compatibilidad o incompatibilidad para la percepciónd e otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado siguiente.

9.3.- El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, asisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas o recursos supere el coste de la actividad subvencionada.

9.4.- Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las normas reguladoras, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión en los términos previstos en la normativa reguladora de la subvención.

9.5.- Los rendimientos financieros que se generen por los fondos librados a los beneficiarios incrementarán el importe de la subvención concedida y se aplicarán igualmente a la actividad subvencionada, salvo que por razones debidamente motivadas, se disponga lo contrario en las normas reguladoras de la subvención.

CAPÍTULO TERCERO
PROCEDIMIENTO PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES

ARTICULO 10º.- CLASES DE PROCEDIMIENTO

10.1.- El procedimiento ordinario de concesión de subvenciones se tramitará en régimen de libre concurrencia. A efectos de esta ley, tendrá la consideración de libre concurrencia el procedimiento mediante el cual la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración previamente fijados en las bases reguladoras y en la convocatoria, y adjudicar con el límite fijado en las convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de los citados criterios.

En este supuesto, y sin perjuicio de las especialidades que pudieran derivarse de la capacidad de autoorganización de las Administraciones públicas, la propuesta de concesión se formulará al órgano concedente por un órgano colegiado a través del órgano instructor.

*10.1.1.-Órgano de Instrucción.*

La instrucción del procedimiento de concesión de subvenciones corresponderá a los técnicos de los servicios municipales de la concejalía que promueva la convocatoria. Realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

*10.1.2.-Órgano colegiado.*

A los efectos previstos en el art. 22.1 de la LGS, el órgano colegiado competente para la propuesta de concesión estará compuesto como mínimo, por el Concejal Delegado correspondiente, Jefe de Servicio y otro técnico municipal competente por razón de la materia.

*10.1.3.- La propuesta de concesión se limitará a valorar los criterios técnicos expresados en la convocatoria.*

10.2.- Podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones:

- Las previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Estado, de las comunidades autónomas o de las entidades locales en los términos recogidos en los convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones.

- Lege mailako arau batek administrazioa ematera behartzen duen edo kopurua finkatzen dion diru-laguntzak, zein araudi propioaren ildotik aplikagarri zaien prozedurari jarraiki emango baitira.

- Salbuespen gisa, deialdi publikoa egitea zailtzen duen interes humanitarioen alorreko behar bezala justifikatutako arrazoiren bat egokitzen delarik ematen diren diru-laguntzak.

10.3.- Ezingo da eman deialdian zehazten den kopurutik gorako diru-laguntzarik.

11. ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK

Laguntza edo diru-laguntzak emateko oinarriek honako hauek jaso beharko dituzte gutxienez:

a) Laguntza edo diru-laguntzaren xedearen, baldintzen eta helburuaren definizio argia eta zehatz-mehatza.

b) Esparru guztietan, diruz lagunduko diren jarduerak eta onuradunek antolatuko dituzten ekitaldi eta ekintzak nori zuzenduak izango diren aintzat harturik, hizkuntza-irizpide jakin batzuk finkatu beharko dira oinarrietan, bi hizkuntza ofizialak modu egokian erabiliko direla bermatzeko. Irizpide horiek zehazteko txostena eskatuko zaio Euskara Zerbitzuari.

c) Onuradunek edo erakunde laguntzaileek diru-laguntza eskuratzeko bete beharko dituzten baldintzak, eta eskatzaileek aurkeztu beharreko egiaztagiriak.

Berariaz adierazi beharko da bertan ezen, ezingo direla onuradun edo erakunde laguntzaile izan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten dutenek, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako erakundeak izanik, helburu nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gizonezkoen berariazko interes eta beharrak sustatzea dutelarik.

d) Eskabideak aurkezteko epea, eta zein zentro edo bulegotara bidali beharko diren.

e) Eskaria bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak zein diren, baita diru-laguntza emateko proposamena egiteaz arduratuko den organoaren osaera ere.

f) Diru-laguntza emateko modua eta baliatuko diren irizpide objektiboak, baita horien ponderazioa ere.

g) Laguntza edo diru-laguntzaren banako zenbatekoa edo hori zehazteko irizpideak, eta, behar izanez gero, diru-laguntzak emateko gehienezko diru-kopurua.

h) Onuradunak edo erakunde laguntzaileak diru-laguntzaren helburua bete duela eta jasotako dirua horretarako baliatu duela justifikatzeko epea eta modua, baita horretarako zein agiri baliatu ahal izango diren ere.

i) Diru-laguntza beste laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarri den ala halakoak jasotzearekin bateraezina den. Bateragarritzat joz gero, behar diren muga edo irizpideak finkatu beharko dira, gainfinantziaziorik gerta ez dadin.

j) Diru-laguntza ordaintzeko moduak eta epeak eta, halakorik izanez gero, kontura ordaintzeko edo aldez aurreko ordainketak egiteko aukera dagoela, aldez aurreko ordainketarik egin nahiz kontura ordaintzekotan onuradunek edo erakunde laguntzaileek jarri beharko dituzten bermeak ordaintzeko epeak eta moduak eta horien erregimen partikularra, baita interes publikoak babeste aldera beharrezkotzat jotzen diren bestelako berme-neurriak ere.

k) Laguntza edo diru-laguntza emateko jarritako baldintzak betetzen ez badira hura itzultzeko obligazioa, baita garatzen den jarduera kostatzen dena baino gehiago jasotzen bada soberakoa itzultzekoa ere.

l) Bete beharrekoak betetzen ez direnean, baita itzuli beharreko laguntzak direnean ere, jasotako dirua itzultzeko prozedura, eta horretatik guztiz edo partez noiz libratu ahal izango den.

m) Onuradunak edo erakunde laguntzaileak dosierra bideratzen duen sailari, Vitoria-Gasteizko Udaleko Kontu Hartzailetzari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari nahiz bestelako erakunde eskudunei eskatzen dioten informazio guztia helarazteko izango duen obligazioa.

n) Interes publikoen aldeko bestelako edozein berme-neurri, beharrezkotzat jotzen delarik, baita, berariaz hala aurreikusten bada, emandako diru-laguntzak berrikusteko aukera ere.

- Aquellas cuyo otorgamiento o cuantía venga impuesto a la Administración por una norma de rango legal, que seguirán el procedimiento de concesión que les resulte de aplicación de acuerdo con su propia normativa.

- Con carácter excepcional aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés humanitario debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

10.3.- No podrán otorgarse subvenciones por cuantía superior a la que se determine en la convocatoria.

ARTICULO 11º.- BASES REGULADORAS DE LAS SUBVENCIONES

Las bases reguladoras de la concesión de las ayudas o subvenciones contendrán como mínimo los siguientes extremos:

a) Definición clara, concreta y precisa del objeto, condiciones y finalidad de la ayuda o subvención.

b) En todos los ámbitos, en función de la actividad objeto de subvención y del público al que se destinen los actos o actividades organizadas por el beneficiario, en las bases reguladoras deberán establecerse determinados criterios lingüísticos para garantizar un uso apropiado de ambas lenguas oficiales. Para la definición de estos criterios se solicitará informe al Servicio de Euskera.

c) Requisitos que deberán reunir los beneficiarios o entidades colaboradoras para la obtención de la subvención y documentación acreditativa a aportar por los solicitantes.

Señalarán expresamente la imposibilidad de obtención de la condición de beneficiario o Entidad colaboradora, a quienes o aquellas Entidades que impidan la presencia y/o participación de mujeres o de hombres, en términos de igualdad, en el seno de dichas Entidades; salvo aquellas compuestas por miembros de un solo sexto, cuyo objeto principal sea la consecución de la igualdad de mujeres y hombres, o la promoción de los intereses y necesidades específicas del colectivo de las mujeres o de los hombres.

d) Plazo de presentación de las solicitudes, centro o dependencia al que habrán de dirigir las mismas.

e) Indicación de los órganos competentes para la instrucción y resolución de la misma, así como la composición del órgano encargado de efectuar propuesta de concesión.

f) Forma y criterios objetivos que han de regir la concesión de la subvención, así como la debida ponderación de los mismos.

g) Cuantía individualizada de la ayuda o subvención o criterios para su determinación y, en su caso, el importe global máximo destinado a las mismas.

h) Plazo y forma válida de justificación, por el beneficiario o entidad colaboradora, del cumplimiento de la finalidad para la que se concede la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos, así como la documentación válida a los efectos de justificación.

i) Posibilidad de concurrencia con otras ayudas, subvenciones, ingresos o recursos y, en su caso, incompatibilidad con su percepción. En el caso de admitirse la compatibilidad, deberán establecerse necesariamente los límites o criterios para evitar la sobrefinanciación.

j) Formas y plazos de pago de la subvención y, en su caso, la posibilidad de realizar abonos a cuenta y pagos anticipados, plazo, modo de pago y régimen particular de garantías que deberán aportar los beneficiarios o entidades colaboradoras para los supuestos de pagos anticipados y, en su caso, para los abonos a cuenta, así como aquellas otras medidas de garantía a favor de los intereses públicos que puedan considerarse precisas.

k) Obligación de reintegro de los fondos percibidos en el supuesto de incumplimiento de las condiciones establecidas para la concesión de la ayuda o subvención, o del exceso obtenido sobre el coste de la actividad desarrollada.

l) Procedimiento de reintegro en los casos de incumplimiento, así como en las ayudas de carácter reintegrable, y los supuestos de exoneración total o parcial de la misma.

m) Obligación del beneficiario o entidad colaboradora de facilitar cuanta información le sea requerida por el Departamento que tramita el expediente, la Intervención del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros órganos competentes.

n) Cualesquiera otras medidas de garantía a favor de los intereses públicos, que puedan considerarse precisas, así como la posibilidad, en los casos que expresamente se prevean, de revisión de subvenciones concedidas.

ñ) Prozedura ebazteko epea eta epe horretan ez ebaztearen ondorioak, diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien nahiz deialdiaren beraren kontra aurkez daitezkeen errekurtsoen azalpena, eta zein organo judizialetan aurkeztu behar diren eta zein epetan, interesatuek egokitzat jotzen duten beste edozein ere aurkeztu ahal izango badute ere.

o) Jakinarazteko modua, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 59. artikuluaren ildotik.

12. ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZAK LEHIAKETA BIDEZ EMATEKO PROZEDURA

12.1.- Abiaraztea: Interesatuak eskatzen duelarik nahiz ofizioz abiarazi ahal izango da diru-laguntzak emateko prozedura, aplikagarri den araudian finkatutakoaren ildotik.

12.2.- Ofizioz abiarazten bada prozedura, eskumena duen organoak onetsitako deialdi publikoaren bitartez egingo da beti ere, eta horri dagozkion oinarri arautzaileei jarraiki jokatuko da.

12.3.- Laguntzak eta diru-laguntzak emateko deialdia arautuko duten oinarriak Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean, Udal Kazetan eta udalaren web orrian argitaratu beharko dira. Gainera, formalki emango zaie horren berri dagokien herritarren parte-hartze organoei.

12.4.- Administrazio prozeduraren arauetan finkatutako betebeharrak bete beharko dituzte eskabideek, eta eskabide eredu eta sistema normalizatura egokitu beharko dute, halakorik izanez gero.

12.4 bis.- Eskabideak eta agiri osagarriak modu telematikoan aurkezteko aukera bultzatuko du Vitoria-Gasteizko Udalak, 30/1992 legearen hemezortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren ildotik.

Onuradunak eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du organo kudeatzaileari baimena ematea Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari ziurtagiriak eskatzeko.

Zenbait agiri aurkeztu beharrean ardura bere gain hartzen dueneko aitorpena aurkeztu ahal izango du onuradunak. Halakoetan, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik eskatu beharko zaio aitorpenean jasotako datuak egiazko direla egiaztatzen duten agiriak aurkezteko, 15 egunetik gorakoa ezin izango den epean.

12.5.- Eskabideak akatsen bat badu edo arauzko agiriren bat falta bada, osatu egin beharko da, administrazioak hala eskatzen duelarik, hamar eguneko epean, jakinarazpena jasotzen denetik kontatuta –hala egin ezean eskabidea besterik gabe artxibatu egingo dela jakinaraziko da bertan.

12.6.- Deialdiaren oinarrietan finkatutakoaren ildotik bideratuko da prozedura, edo diru-laguntza arautzen duen araudiaren ildotik, erabakia hartzeko kontuan izango diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeari dagozkionez administrazio prozedura erkidearen arauetan xedatutakoa aintzat harturik.

12.7.- Eskabideen ebaluazioa egin ondoren –deialdian hala aurreikusten bada– ebazpen-proposamena egingo du prozedura bideratzen duen organoak, eta deialdian bertan zehazten den moduan eman beharko zaio horren berri interesatuari. Orobat eman beharko zaio 10 eguneko epea alegazioak aurkezteko.

12.8.- Diru-laguntza ematea proposatzen den eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda jaso beharko du ebazpen-proposamenak, baita diru-laguntzen zenbatekoak ere, eta orobat eman beharko du ebaluazioaren eta baliatutako balorazio irizpideen berri.

12.9.- Laguntza edo diru-laguntza emateko ebazpena behar bezala arrazoitu beharko da, eta egiaztatuta geratu beharko dute, beti ere, hartutako erabakiaren oinarriek. Nahi duen ororen arteko lehia baliatzen deneko prozeduretan, araudian edo deialdi publikoaren oinarrietan jasotako irizpide objektiboak baliatuz arrazoitu beharko da ebazpena.

12.10.- Halaber, berariaz adierazi beharko dira honako hauek: xedea, diru-laguntza ematen zaion eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa, ordaintzeko modua eta epeak, justifikatzeko modua, zein xedapenen ildotik eman den diru-laguntza, eta laguntza edo diru-laguntzaren araudian nahiz diru-laguntza arautzen duten oinarrietan galdatzen diren baldintza eta betebeharrak. Orobat adierazi beharko da berariaz, beti ere, gainerako eskabideak ezetsi egin direla.

12.11.- Gisa berean, ebazpanaren kontra aurkez ditzaketen errekurtsoen berri emango zaie interesatuei bertan, eta zein organo judi-

ñ) Plazo de resolución del procedimiento y efectos de la falta de resolución en plazo, expresión de recursos que procedan contra las bases reguladoras de las subvenciones, y su convocatoria, órgano judicial ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlo, sin perjuicio de que los interesados puedan ejercitar cualquier otro que estimen conveniente.

o) Medio de notificación, de conformidad a lo establecido en el artículo 59 de la Ley de Régimen Jurídico y del Procedimiento Administrativo Común.

ARTICULO 12º.- PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN EN RÉGIMEN DE LIBRE CONCURRENCIA

12.1.- Iniciación: El procedimiento para la concesión de subvenciones se iniciará a solicitud de la persona interesada o de oficio, de conformidad con lo que se establezca en la normativa aplicable.

12.2.- La iniciación de oficio se realizará siempre mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente, y de conformidad con sus correspondientes bases reguladoras.

12.3.- Deberán publicarse las bases reguladoras de la convocatoria de la concesión de ayudas y subvenciones correspondientes en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, en la Gaceta Municipal y página web municipal. Además, se comunicarán formalmente a los órganos de participación ciudadana que correspondan.

12.4.- Las solicitudes deberán reunir los requisitos establecidos en las normas de procedimiento administrativo y se ajustarán, en su caso, al modelo y sistema normalizado de solicitudes.

12.4 bis.- El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz impulsará la presentación telemática de solicitudes y documentación complementaria en los términos previstos en la disposición adicional decimoctava de la ley 30/92.

La presentación de la solicitud por parte del beneficiario conllevará la autorización al órgano gestor para recabar los certificados a emitir por la Hacienda Foral y la Tesorería General de la Seguridad Social.

El beneficiario podrá acogerse a la sustitución de la presentación de determinados documentos por una declaración responsable. En este caso, con anterioridad a la propuesta de resolución de concesión de la subvención se deberá requerir la presentación de la documentación que acredite la realidad de los datos contenidos en la citada declaración, en un plazo no superior a 15 días.

12.5.- Las deficiencias en la solicitud y la omisión en los documentos preceptivos deberán subsanarse previo requerimiento, en el plazo de diez días desde la notificación, en la que se indicará que si no lo hiciese, se le tendrán por desistido de su petición, que será archivada sin más trámite.

12.6.- La instrucción del procedimiento se realizará de conformidad a lo establecido en las bases de la convocatoria, o en la normativa reguladora de la subvención, y de conformidad con lo dispuesto en las normas de procedimiento administrativo común para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe pronunciarse la resolución.

12.7.- Cuando la convocatoria así lo prevea, una vez evaluadas las solicitudes, el órgano instructor formulará la propuesta de resolución, que deberá comunicarse al interesado en la forma que establezca dicha convocatoria y se le concederá un plazo de 10 días para presentar alegaciones.

12.8.- La propuesta de resolución deberá expresar el solicitante o relación de solicitantes, para los que se propone la concesión de la subvención, y su cuantía, especificando su evaluación y criterios de valoración seguidos para efectuarla.

12.9.- La resolución de concesión de la ayuda o subvención deberá motivarse debidamente, debiendo, en todo caso, quedar acreditados los fundamentos de la resolución que se adopte. En los procedimientos de libre concurrencia, la resolución se motivará con referencia a los criterios objetivos de concesión que rigen en la norma o bases de la convocatoria pública.

12.10.- Asimismo se deberá hacer constar expresamente el objeto, solicitante o relación de solicitantes a los que se concede la subvención, importe, forma, y plazos de pago, forma de justificación, disposición a cuyo amparo se hubiera otorgado y demás condiciones y requisitos exigidos por la norma reguladora de la ayuda o subvención y por las bases reguladoras de la subvención, debiendo hacer constar en todo caso, de manera expresa, la desestimación del resto de las solicitudes.

12.11.- Igualmente, en la resolución se pondrán de manifiesto a los interesados, los recursos que contra la misma proceda, así como

zialetan eta zein epetan aurkeztu behar dituzten adieraziko, egokitzat jotzen duten beste edozein ere aurkeztu ahal izango badute ere.

12.12.- Prozedura ebatzi eta ebazpenaren berri emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da. Deialdia aldizkari ofizialean argitaratzen denetik kontatuko da epe hori. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, eskabidea ezetsitzat joko da.

13. ARTIKULUA.- ZUZENEAN EMATEKO PROZEDU-RA. HITZARMENAK.

13.1.- Ordenantza honen 4. artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira diru-laguntza ematea ebatzi aurretik. Aplikagarri diren baldintzak eta konpromisoak finkatuko dira diru-laguntzak bideratzeko izenpetzen diren hitzarmenetan, ordenantza honetan eta gainerako arau orokorretan jasotakoaren ildotik.

13.2.- Hitzarmenak izango dira Vitoria-Gasteizko Udalaren aurrekontuetan inoren izena eta guzti aurreikusitako diru-laguntzak bideratzeko ohiko tresnak.

14. ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZEN BERRI ARGITARATZEA

14.1.- Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argiratu beharko da emandako diru-laguntzen berri, banaka harturik 3.000 euroko zenbatekoa gainditzen dutelarik, eta honako hauek adierazi beharko dira bertan: deialdia, programa eta aurrekontu kreditua, onuraduna, emandako kopurua eta diru-laguntzaren xedea edo helburuak.

14.2.- Zenbatekoak, banaka harturik, kopuru horretatik beherakoak direlarik, zerrenda batean bildu beharko dira emandako diru-laguntzak, eta hiru hilean behin argitaratu hori ALHAOn, Udal Kazetan, udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian.

Epe horretan emandako diru-laguntzak ageriko dira zerrendan, eta diru-laguntzen onuradunak, zenbatekoak eta xedeak zehaztuko.

14.3.- Ez da beharrezko izango diru-laguntza eman izanaren berri argitaratzea honako hauetan:

a) Diru-laguntzak erakundearen aurrekontuetan izenez esleituta ageri direnean.

b) Diru-laguntza onuradun jakin bati ematea –baita eman beharreko kopurua ere– lege mailako arauren batek agintzen duenaren ondorio denean.

c) Onuradunaren datuak agitaratzea –diru-laguntzaren xedea dela eta– maiatzaren 5eko Ohorea, Norberaren eta Familiaren Intimitatea nahiz Norberaren Irudia Zaintzeko Eskubidea Babesteari buruzko 1/1982 Lege Organikoan aurreikusitakoaren kontrakoa izaki araudian hala aurreikusi denean.

